



Galarreta ingurua eskualdeko komunikazio bihotza izango da etorkizunean eta parke enpresariala ere izan lezake.

Galarreta ingurua komunikazio puntu estrategiko jotzen du Jaurlaritzaren lurralde planak

■ Planifikazio intersektoriala izatea proposatzen du Lurralde planak ■ Sorgintxulo-Galarreta-Jauregin, parke enpresariala jartzea proposatzen du, eta inguru naturala sortzea Oriamenditik Santa Barbara bitartean.

SABIN Intxaurrea eta Korko Aizarnak aurkeztu berri dute Donostialde guztirako lurralde antolaketa proposamena eta Galarreta ingurua komunikazio puntu estrategiko kontsideratzen du. Lurralde antolaketa Plan horrek Donostialdeak (eta horren barruan Hernanialdeak) izango duen antolaketa zehazten du, bai azpiegiturretan, bai komunikazioan, eta baita ingurugiro hirigintzan ere. Zentzu horretan, Galarreta eta Jauregi aldeak komunikazio sare handi baten bihotz izango da eta Donostialdea, Oria bailara eta Urumea bailera artikulatuko ditu. Komunikazio proiektu nagusiak Donostiako zinturoia eta Iparraldeko bariantea dira.

Komunikazio puntu estrategikoz gain, Galarreta-Jauregi eta Sorgintxulo ingurua leku egokia ikusten du Jaurlaritzak parke enpresariala jartzeko.

Bestalde, Santa Barbara Oriamendi lotuko dituen parke bat sortu nahi dute eta Jaurlaritzaren planak proposatzen du espazio horren barruan biltzea Chillida-Leku, Toki-Eder, Zabalegi, Miramoneko Parke Teknologikoa eta abar ere.

Lurralde antolaketa planak beste proposamen gehiago ere egiten ditu eta eskubiko koadroan datoz gehienak. Intxaurrea eta Aizarnak ostegunean azalduko plana hori esposizio publikoan jarriko da eta eztabaida fasea dator orain.



Aizarna Diputatua erdian eta Intxaurrea Sailburua eskubian.

LURRALDE ANTOLAKETA PLANA DATOZEN 16 URTERAKO. PROPOSAMENA

Planaren helburua

⇒ Eskualdeko ekilibrioa mantendu eta bizi kalitatea hobetu, desarrollo jasangarriaren barruan.

Komunikazioak

- ⇒ Donostiako zinturoia, Galarretatik barrena pasako dena.
- ⇒ Urumeako bariantea, Donostiatik Andoainera (N-1).
- ⇒ Iparraldeko bariantea. Galarretatik Urumeako barianteerako bidea, Oria bialara Urumearekin lotzeko.
- ⇒ Abiadura Haundiko Trenaren geltokia Astigarragan.
- ⇒ Donostiatik Andoainera oinezko eta bizikletentzako bi-deak. Bat Urumeatik barrena eta bestea Aietetik barrena, Galarreta, Santa Barbara, Arrikarte, Oztaran eta Buruntzatik.
- ⇒ Donostiatik Andoainera oinezko eta bizikletentzako bidea Urumea ondoan barrena.

Infraestruturak eta zerbitzuak

- ⇒ Parke enpresariala Galarreta-Jauregi-Sorgintxulon
- ⇒ Ur depositu berria Oriamendin.
- ⇒ Astigarragan nukleo tertziarioa bultzatu Tren estazio, Urumeako bariante eta Bigarren zinturoiaren bueltan

Urbanismoa

- ⇒ Transformazio urbanistikoa Floridan. Renfeko estazio inguru industrial, pixkana zona residentzial eta tertziario bihurtu.
- ⇒ 2.300-3.3000 etxe berri Hernani, Urnieta eta Astigarragan.

Ingurugiroa

- ⇒ Parkea Santa Barbara eta Oriamendi artean, Donostialdea, Urumea eta Oria bailarak bilduko dituen. Chillida-Leku, Toki-Eder, Zabalegi, Miramoneko Parke Teknologikoa eta abar ere espazio zabal horren ekipamendu izango dira.
- ⇒ Uholderik ez izateko neurriak Urumean. Besteak beste, errioi bidea aldatzea Hernani eta Martindegi artean.

Umeentzako ibilaldia

IBILALDI neurtua izango dute bihar gazteek Hernanin barrena. Ibilbidea da Gudarien plazatik atera eta Osiñaga aldera jo, eta handik Errotaran Bekoa, Parodiola, Okendoenea, Lastaolabe, eta Elorrabira. Gero, zubitik errioa pasa Ibarluze aldera, eta Osiñagara berriz, zubitik; handik Urnieta aldera jo (Eula) eta trenbide ondok barrena herrira buelta. Parte hartu nahi dutenak, bihar 08:15etan Tilosetan. □

TOLAREA

Kofradiaren festa bihar

TOLAREA Sagardo Naturalaren Kofradiak 8garren Kapituloa izango du bihar Hernanin. 10:30etan, beste Kofradia eta gonbidatuei harrera egingo zaie Xalapartan; 10:45etan, hamaiketako da Sta Barbaran; 12:00etan, Biterin Kapitulu ireki eta Ohorezko Kofradeak izendatuko dira; 12:45etan, kofradiaren desfilea; eta 14:30etan, bazkaria Larre Gainen. □

AGENDA 21

Estudioaren aurkezpena

AGENDA 21 planaren barruan Hernaniri buruz egindako azterketa aurkeztuko dute gaur Biterin, goizeko 10:00etan. □

ERRUGBIA

Hernani-Oridizia bihar

HERNANIK liderraren kontra jokatu du bihar Landaren 12:00etan. Urteko partidu inportanteenetakoa da biharkoa hernaniarrentzat, 3garren egonda Oridiziarengana asko inguratuko bailirateke bihar irabazita.

JUBILATU ETXEA

Igandean 'bailea'

JUBILATU Etxeko taberna zerbitzua martxan da eta aste honetan hasiko dira igandeko dantzaldiak, betiko orduan. □

Telemar

ITXASTELE S.L.



MARTXOAN
PHILIPSen
**eskeintza
bereziak**
14" pulgadako
telebistetatik
32" pulgadaketara

TELEMAR Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel:943 55 33 99 - 943 33 00 60

MARI FA

ARRANDEGIA



Nagusia 36
943 55 04 89

Orkolaga 17
943 55 27 41



Antziola-Motor

SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA



18 urte Hernanin, zuekin
Ford-eko gama guztiarekin

Modelo guztiak

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteazkera 9-13 eta 16-20 - Larunbata 10-13

Europako Kontseiluko erakunde batek dio sinestekoak direla Iratxe Sorzabalen tortura testimonioak

■ Espainiako Gobernuak atera du Torturaren Prebentziorako Komitearen informea.

TORTURAREN Prebentziorako Komiteak azterketa berezi bat egin zuen 2001 zenbait tortura salaketa izan zirela eta. Salaketetako bat Iratxe Sorzabalena izan zen. Sorzabal Guardia Zibilak atxilotu zuen eta, besteak beste,

elektrodoak jarri izana salatu zuen. Orain, Europako Kontseiluko erakunde horrek egin dako azterketak dio bat datozela Sorzabalen kontakizuna eta gorputzean zituen zauri arrastoak. TATEk azaldu du, ordea, epaileak dagoeneko

artxibatu duela Iratxe Sorzabalen tortura salaketa.

Informearen arabera, TPK-k Gobernu Espainolari eskatu dio atxilotuek izan ditzatela konfiantzazko medikua eta abokatua, baina, Gobernuak ukatu egin dio eskaera hori. □

Koro Erdozia: "Emakume inmigranteek traba izugarri dituzte hemen, baina, lana latz egin eta gauzak lortzen dituzte normalean"

■ SOS razismoko kideak egoera bere gordinen azaldu zuen asteazkenean Biterin.

KORO Erdoziak hitzaldia eman zuen asteazkenean Biterin, 30 bat lagunengoa. Inmigranteen egoera azaldu zuen eta bereziki emakumeena. Esan zuen egoera nahiko beltza dela, inmigranteek traba besterik ez daukatelako hemen, lana, paperak, etxebizitza eta abar lortzeko, baina, lan asko eginda asko aurrera ateratzen omen dira. Esan zuen, legez kanpo daudenek lana bilatu behar omen dute lehenengo, bizi ahal izateko eta ahal dutenean bisatua eta paperak lortzeko. Lan baldintza oso txarretan dauden inmigranteen adibideak jarri zituen eta Extranjeria legeak ere hori bultzatzen omen du "lanerako erramintak nahi baititu eta ez pertsonak". Paperik gabe dagoenak gainera erabat ezkutuak lan egin behar duela esan zuen "lana erabiltzen baitu

estatuak inmigranteak kontrolatu eta legez kanpo badaude kanpora bidaltzeko".

Etxebizitza arazo

Arazo haundietako bat etxebizitzarena zela esan zuen Erdozia: "guretzat alkilerak garesti daude eta inmigrante batek % 30 gehiago ordaindu behar izaten du normalean, eta hori etxea alokatzen badiote". Hemengo jendeak eta inmigranteek lan egiten duten lantegiek eman lezaketan laguntzarik haundienetakoa etxea bilatzen laguntzea dela ere esan zuen: "berak bakarrik joan ezker ez diete normalean etxerik alkilatzen nahi, baina, bertako lagun batek edo enpresak presionatuta gauzak asko aldatzen dira". Behin hemen "legez jarrita" familia ekartzeko dauden trabak eta abar ere azaldu zituen.




Koro Erdozia.

Emakumeak okerren

Erdoziaren hitzetan emakumeek oraindik eta egoera zailagoa dute, baina, sufritzen eta gauzak aurrera ateratzen ohituta daudelako askok lortzen dute hemen gelditzea eta beren egoera legalizatzea. Esan zuen egoeraren aurrean solidaritatea sentitu behar dela eta ez pena, eta ondoan jarri eta lagundu egin behar zaiela. □

HITZ BITAN



Umeek gozatu ederra hartu zuten Takolo, Pirritx eta Porrotxekin.

✓ TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX

Umeak txoratzen. *Takolo, Pirritx eta Porrotx* pailazoek kiroldegia leporaino bete zuten atzo, *Katxiporreta* ikuskitunarekin. Takolo, Pirritx eta Porrotxek ikusmin handia sortu zuten eta ostegun arratsalderako sarrera guztiak salduta zeuden. Lasarteko pailazoek 15 bete dituzte lanean eta orain arteko onena eskaini zuten atzo Hernanin. Umeek gozatu ederra hartu zuten.

✓ FUTBOLA-GORENGOA

Hernanik partidu zaila du gaur Pasaian. Gorengo taldeak pasaian jokatu du gaur 16:00etan liderraren kontra. Hernanik irabaztera irten behar du pixkanaka lasai egoteko postuetan sartzeko. □

✓ MOLOTOFF BATZARRA

Batzarra gaur, 10:00etatik 13:00etara AEKn. Molotoff irratia aurrera nondik jo erabakitzeko lehen bilera du gaur. Bileraren irekia da eta Molotoffek dei egin die interesatuta dauden guztiei azaltzeko.

✓ BOLA

Antonio Miner lehen hernaniarra Legazpin. Legazpin jokatu zen lehengo asteburuan erregularitateko tirada. Irabazle German Gereñu legazpiarra izan zen 49 brillarekin eta lehen hernaniarra Antonio Miner, 5 garren 48 brillarekin. Aurelio Santos 6garren izan zen 48rekin eta Joxe Ugalde 7garren 48rekin. Saikapen orokorrean lehen hernaniarra Joxe Ugalde da, 5garren 222 brillarekin, eta hurrengoa Migel Burugain dago 8garren 218 brillarekin. Ibon Miner 10garrena da 217rekin eta Aurelio Santos 15garren 212rekin.

✓ PALA TXAPELKETA

Partiduak gaur kiroldegian. Hernaniko pala txapelketa aurrera dioa eta gaur partiduak daude kiroldegian, 16:30etatik aurrera. 16,30etan Ibai-Inaki/Olazabal-Olaran; 17,30etan Estefano-Ezeiza/Lujanbio-Ortega; 18,30etan Valero-Galarza/Arluziaga-Esteban.

✓ PELOTA

Grajal-Ezeiza Euskal Herriko finalean gaur. Grajal eta Ezeiza hernaniar infantilek Euskal Herriko finala dute gaur Zizurkilen, arratsaldeko 16:00etan. Bi gazte hauek partidu bakarra galdu dute txapelketa guztian eta irabazteko aukera handiak dituzte. □

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Taldeak	Non	Noiz
Goren.	Pasaia-Hernani	Molhago	Gaur 16:30	Kronika Txapelketa			
Emak. Li	Amara Berri-Hernani	Martutene	Gaur 15:30	Esk. 2.naka	Txubi-Ko Ito/Ker-Ahisko	Tibseta	Gaur 16:00
1. Emej.	Behobá-Hernani	Gal	Bihar 14:45	Esk. 2.naka	Zeha-Urdangain/Tutu-Aharr	Tibseta	Gaur 16:30
Gaz. Oh.	Hernani-Sotomeras	Zubipe	Gaur 16:30	Esk. 2.naka	Utziz-Ujizra/Huzi-Villar	Tibseta	Gaur 17:00
Kad. 2.	Hernani-Lengokoak	Zubipe	Gaur 12:15	Hernaniko Pala Txapelketa			
Haur Oh.	Lengokoak-Hernani	Henera	Gaur 12:00	Ligila	Ibai-Inaki/Olazabal-Olaran	Kiro Hegia	Gaur 16:30
ERRUGBIA				Ligila	Estefano-Ezeiza/Lujanbio-Ortega	Kiro Hegia	Gaur 17:30
1. L. Naz.	Hernani-Oritzia	Landae	Bihar 12:00	Ligila	Valero-Galarza/Arluziaga-Esteban	Kiro Hegia	Gaur 18:30
Jub. Eus.	Ebarr-Hernani	Ebarr	Gaur 16:30	EHko, Gipuzkoako eta Udaberri txapelketak			
Kad. Eus.	Ebarr-Hernani	Unbe	Gaur 11:30	Eskuz	Abeamendi-Abeamendi-San Sebastian	Ozati	Gaur 11:00
Inf. Gip.	Ebarr-Hernani	Unbe	Gaur 10:30	Palgoma	Tijero-Lujanbio/Buntarian-Ahizaba	Kiro Hegia	Gaur 12:30
Aleb. Gip.	Oritzia-Hernani	Unbe	Gaur 10:30	Palgoma	Hoz-Manchobas/Aizetama	Kiro Hegia	Gaur 12:30
MAHITENISA				Kad. Trinke	Apalaza-Amegi	Gaska	Gaur 16:00
1. L. Naz.	Hernani-Hernani Txantrea	Kiro Hegia	Bihar 16:00	Jub. Trinke	Ametza-Ramuntxo	Gaska	Gaur 16:00
Auton.	Guzte Taile-Hernani	Portugalt	Gaur 17:30	Jub. Trinke	Gumutaga-Zumutaga	Gaska	Gaur 16:00
BOLEBOLA				Palamotoz	Lujanbio-Galarza/Olangu	Kiro Hegia	Gaur 12:30
Jub. Nes	Lizardi-Hernani	Zarautz	Gaur 17:00	Infantila	Grajal-Ezeiza/Beharrena	Zizurkil	Gaur 16:00
Kadetek	Langile-Zukatz Fortuna	Kiro Hegia	Gaur 09:30	WATEPOLOA			
				Euskal Liga	Hernani-Santosa	Kiro Hegia	Bihar 13:00
				2. Eus. mut	Martas-Hernani	Leba	Gaur 14:30



GALARRETA JAI-ALAI FRONTOIA

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

- partidua: Zalakin - Agirrezabala / Larrea - Gaztelu
- partidua: Ezkurra - Lander / Altuna I - Iriarte
- partidua: Elizalde - A.Lekunberri / Agirresarobe - Aizpuru
- partidua: Iribarren - Etxeberria / Matxin III - Badiola



OIALUME BILTOKIA

Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik

Bihar igandea:

Disko Top disko festa eta Nekin triki taldea

OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa - 943 55 29 38

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
☛ Taxiak: 943 550093	☛ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11
☛ Udaltzaingoa: 943 333288	☛ 943 336077
☛ DYA: 943 464622	☛ Gauez: Aizpuru Latxunbe Berri 11
☛ Autobusak: 943 556662	☛ 943 336077
☛ Anbulatorioa: 943 006666	
☛ Jokalari anonimoak: 943 331103	

IRAGARKI MERKEAK

Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke goizetan. (Informe eta erreferentziak). Deitu: 699 14 92 85

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar baduzu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

55 urteko emakume batek etxeko lanak egin, umeak zaindu edo antzeko lanak egingo lituzke. Erresposntablea eta langilea. Deitu: 943 55 54 36